Bizkai mendebaldeko literatura-eskola klasikoaz: Añibarro eta Zabala*.

Adolfo Arejita

0. SARRERA

Euskal literatura klasikoaren sorkuntza eta lehen garakuntza, XIX. mende-hasieran kokatzen da Bizkairako. Juan Antonio Mogel abadea (1745-1804) dogu aintzindari, Markinako Uriko eleiz aulkitik diharduala, eta honegaz bateratsu, Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) fraile billarostarra dira mende honen hasieran eleiz liburu apalak bizkai euskeraz ateraten hasten diranak. Pedro Astarloa (1751-1821), harean gazteagoa, haiek baino hamarkada eta erdi beranduago hasiko da bere *urteko domeka* berbaldiak argitaratzen. Baina fraile hau, honen anaia Pablo apologialaria legez, sortzez durangarra eta sustraiz eta jatorriz markinarra izanik, Bizkai ekialdeko tradizinoan kokatu beharreko idazlea dogu, Mogeldarrak eta Frai Bartolomegaz batera, nahiz eta Bilbon emon bere fraile-bizitza gehiena.

(*) Berbaldi hau iazko jardunaldietan (*Euskalkien lekua literaturan*, Bilbo, 1999/05/14-15) irakurria dozue.

Halanda ze, Añibarro hartuko dogu Bizkai mendebaldearen lehen ordezkari nagusitzat, eta haren jarraigokoa izango dan Juan Mateo Zabala fraile bilbotarra, hurrengo belaunaldiaren ordezkaritzat, nahiz beste batzuk be diran aipua merezi dabenak.

Literatura-eskola berbea erabili dogu, azken baten hizkuntza eta hizkera-ezaugarriak hartzen ditugulako erizpidetzat, zein mendebaldeko edo zein ekialdeko eskolan kokatu erabagi orduan. Esaterako, gauza jakina da Bizenta Mogelek Bilbon emon ebala ezkondu ezkeroko bizitza eta hemen ondu zituala hainbat gabon--kanta eta gainontzeko lan, baina haren bizkaierazko lana Markinako eskolakotzat joko genduke zalantza izpi barik. Beste hainbeste esan behar da, Bonaparteren lankide sutsua izan zan Jose Antonio Uriarte arrigorriatarragaitik (1812-1869). Exklaustrazio ostean Markinan emon ebazan hogei bat urte luze, euskeraz argitaratzen hasi zaneko urteak. Bizkai euskarari dagokionez, Markinako eskolan edan ebana ez dago dudarik: mogeldarrak izango ditu iturri eta gidari, eta haien eredura idazten saiatuko da.

1. BIZKAI MEN DEBALDEAREN EREMUA

Uribeko merindade zaharra hartzen dau batipat: Bilbo eta inguruak, Txorierria, Mungialdea, Uribe-kosta, Arratia, Nerbioi ibarra –Behe eta Goi Nerbioialdea, Laudio eta Orozko barruan dirala–.

Busturialdeak zubi egiten dau mende eta ekialdearen artean.

Durangoaldea, literaturaren araura, mendebaldeaz lotua dago, Ibaizabal ibar zabala bitarte dala.

2. AURRETIKOAK

Añibarro eta Zabalaren hizkera-eredura abiapuntutzat harturik,

itandu daiteke: nondik edan eben? non bilatu daikeguz haien erduaren aurre-azterrenak, baldin aurre-eredurik badago?

XIX. mendeko euskal literaturgintza apalean Mogeldarren Markinako eredua nagusitu zana ez dago dudarik, baina bestetik, gure fraile misiolariek be ez eben amore emon hizkera-eredu kontuan, bizi izan ziran artean behinik behin. Eredu-euste horren arrazoiaz hausnar egin beharra dago, baina oraingoz bilatu daiguzan aurretikoak. Bi aitatuko ditut:

a) Kardaberazen misino-lanak Bizkaian euskerarentzat euki eban garrantziaz aitatu eban aspaldi gure Lino Akesolok. Haren ahaleginari esker sortu ziran Jaurerrian zein Probintzian hainbat Jesusen Debozioko Kongregazino, eta haietan sermoia euskeraz egiteko ohitura[1]. Kardaberazen lehen hazia garrantzi handikoa izan zan, nonbait, sermoia euskeraz egiteko ekandua sustraitu eta zabaldu orduan. Baina haren eragina ez zan mugatu, zorionez, berbazko misiogintzara. Dotrina eta debozio gaiazko hainbat liburu argitara emon zituan 1760tik aurrera, deserritua izan zan bitarteko (1767) aldi labur horretan. Gipuzkerazko argitarakuntza ugariagaz batera, bizkaierazko argitaratze bikotx apala be egin eban: Asteteren bizkai bersioa batetik: *Doctrina Cristiana edo Cristiñau Dotrinea, bere Declaraciño laburragaz* —114 orr. formato txikian—, data barik argitaratu izanagaitik, 1762-kotzat joten dana. Eta *Jesus, Maria ta Joseren devociñoco Libruchoric atararico devociño batzuc,* 1764an, 176 orrialde. Ez dakigu zenbaterainoko zabalkundea izango eben liburutxuok, baina misiogintzaren lagungarri ohi zirala jakinik, eleizetara ezeze etxe askotara be helduko zirala pentsa daiteke. Gauza jakina da, Kardaberazen izenaz 1783an Asteteren beste bersino bat agertu zala, baina hau Markinako ereduan idatzia, zein izenburua dan: *Cristinaubaren*

[1] Mogelek berak dituen euskerazko sermoiak, ia guztiak Markinako JBD kongregazinorako eginak dira, esate baterako.

Jaquinvidia. Aita Astetec erderaz eguina, Ceinian aguertu, ta adierazo - ten dirian itaune, ta eranzutetan gueure Fedeco gauzaric biarrenac. Ifinieban Bizcaico Eusqueran Aita Agustin Cardaberaz Jesuitiac. Orain urteten dau eusquera apaindubaguan. Tolosako Fr. de la Lama-renean atera zan bersino honek, Altzibar ikertzaileak ondo frogatu ebanez, zerikusi gitxi dauka Kardaberaz-egaz, haren izena agertu arren. Juan Antonio Mogel jo behar da horren egiletzat.

b) Eta Kardaberazenaren ostetxoan (1763) argitara emoten da Gasteizen Laukarizko *Kurea* zan Bartolome Olaetxearen *Dotrinea Cristianea,* hau be irakurtza-data barik. Dotrina honek eragin handia izango dau ondoko mende eta erdi luzean, obratxu honek ezagutua dituan etenbako argitaraldiakaitik, eta XVIII. mendean bertan lau-bost, baina bigarrenetik aurrerakoak Markinako euskera-ereduaz idatziak dagoz. Hauxe lehenengoau baino ez mendebaldeko ereduaz.

c) Azterren bila urrunago jo ezkero, Durango eskola apalagaz topo egingo dogu XVII. mendean: Kapanaga, Urkizu eta beste eleizgizon batzuen lanak inprimarazo ziran mende horren erditik aurrerantz Durangoko urian. Beharbada urrunegi joatea litzateke Kapanagaren dotrinara lorratz bila, baina ezin da ukatu, haien lanak be Bizkaiko euskara tradizinoaren katebegi bat osotzen dauala, dagokion mailan aintzat hartu beharrekoa.

Bestetik, ezin da garbi frogatu be, Añibarroren aurretiko ereduak Kardaberaz eta Olaetxea diranik be; ez behintzat, Mogelena eta Markinarrena diran baino gehiago dirala behintzat. Hizkera aldetik alkarren hurkotasun gehiago dabela esan daiteke, hitzen ebakera eta beste fonetika joeretan, eta bardin morfologiako zenbait alderditan. Zahar kutsuko forma kide gehiago aurkitu leitekez beharbada euren artean, Mogelegazkoan baino.

3. MISIOLARI ETA EUSKAL ESKOLA: BEREZITASUN NAGUSIAK.

Bizkai mendebaldeko euskal literatura eskola bat egon dagoen da egin beharreko lehen itauna. "Markinako eskola" izenaz ezagutzen dogunak Markinan dau erdigune, nahiz Durango eta itsasertzeko urietara be luzatu daitekean. Baina Bizkai mendebaldekoak non dau erdigunea? Bilbon? Bermeon? Gernikan? Ete da uriren bat, edo uri--sareren bat, eskola horren erdigune dala esateko moduan? Bilbon baegoan zeozertxo aurreko mendetik be, euskera idatzia loratzen ebana: Donejakue eleiza eta Jandone Praiskuren komentuan gabonez kantatzeko silutegiratzen ziran "Gaboneko Kantak". Baina hori, gehiagoko barik, ez da nahikoa eskola batez hitz egiteko.

Apur bat harrigarri badirudi be, Bizkai mendebaldeko literatura-eskolaren gunea ez dago ez Bilbon, ez Bizkaian, Zarautzen baino, Gipuzkoan, eta zehatzago esateko, Misionarien Kolejioaren magalean.

Jesuitak jaurtigi ebezanik gora, frantzizkotar ordenakoak bihurtu ziran misiogintzaren arduradun nagusi Bizkai, Gipuzkoa eta Araban, eta Nafarroan be baziharduen, han kaputxinoak indartsuago ziran arren. Bilbo, Bermeo, Tolosa eta Arantzazuko komentuak ziran eragin horren sorgune, baina misiogintzari jagokonez, Zarauzko Misionarien Kolejioa, zeregin horretarako beren-beregi eregi izan zana. XVIII. mende akabuan, misinoginen ospe handia irabazi eban sermoelari sutsu bat izan zan, oinatiarra eta euskalduna, baina bere jarduna ia beti erdaraz bete ebana: Aita Palacios. Hak emon eutsan bere zigilua Zarauzko Kolejioari. Haren ondorengotzat jo daiteke Pedro Antonio Añibarro billarostarra, eta honen ondorengotzat Juan Mateo Zabala bilbotarra.

Misioginen etxe hau parebako muntegi bihurtu zan euskara lanerako; euskal hizkuntza ezinbesteko tresna bihurtu zalako euskal

herrietan misinoa egiteko, batez be herri txiki eta nekazal girokoetan, nahiz eta uri eta herri nagusietan be euron eragina indartsua izan. Ez daigun ahaztu Bermeo, Bilbo, Tolosa uribildu haziak zirala orduan be.

Kolejio honetako predikariek, zein komentu arruntetakoek sortu eta eihoko daben "euskal literatura" guztiz berezia eta pragmatikoa da, salbuespenak kenduta. Erlijio gaien gaineko erretorika da haiek landuko daben jeneroa. Gaiaren aldetik ez dago orijinaltasun modurik: latinez edo beste hizkuntza nagusietan idatzitako dotrina eta tratatuak erabiliko ditue iturritzat. Euron lana, euskeraz atontzea izango da gehienbat: aldi hatako entzuleentzat adigarri eta konprenigarri izango dan eran taiutua. Gaia, beraz, aurrez ezaguna, eta gaiaren garapena be iturri jakinetatik hartua. Orijinaltasuna, egotekotan, irudietan, konparantzetan, estilo-adierazpideetan eta, orohar, hizkeran egongo da.

Baina dotrina-gaiak euskeraz atontzeak be nekea eta trebakuntza eskatzen eban ezinbestean. Eleizgizonek ez eben behar adinako prestakuntzarik, ez sermoi bat euskaraz idazteko, ezta behar dan moduan ulertu eta boz goraz ondo irakurteko be sarritan. Peru Abarkako Don Kalixtoren modukoak ugariak ziran Mogel eta Añibarroren aldian. Hutsune eta premina horrek eraginda garatu eben gure misionariok hizkuntzaren aldeko beste ertz bat: lexikogintza (batez be konparatua) eta gramatika (gehienbat aditzean ardura harturik). Literatura ederra deritxaguna, aisialdietako entretenigarri hutsa baino ez da izango; euskal idazkuntzaren eremuan be guztiz bazterrekoa. Alegiak ontzeari ekingo deutso Mateo Zabalak. Atsotitz-errefrau biltzea, Añibarrok, Zabalak eta Jose Antonio Uriartek besteak beste landuko daben eremua, herri-folkloreari balioa emote aldetik ikusi behar da.

Añibarro eta Zabala, biak dira bizkaitarrak, biak etxez eta ingurugiroz euskaldunak, baina euren euskalzaletasuna Bilbon edo Bizkaian heldu edo osotu ebenen azterrenik ez daukagu. Añibarroren kasuan, antz gehiago dago, Arantzazuko egotaldian beregandu eukeala euske-

ra ikasi eta landu beharra, Ubillos be han egoan-eta aldi hatan. 1790ean onartu eben Zarauzko Misionari Kolejioan, eta heriotzara arteko hurrengo berrogei urteak han emongo ditu. Han egoala ezagutu eukean Markinako Kuria, Juan Antonio Mogel: pentsaeraz eta euskalzaletasunez kide izanik, alkarren lagun handi egin ziran.

Juan Mateo Zabala zelan euskalzaletu zan ez dakigu garbi. Badakigu, ostera, berak esanda, Pablo Astarloaren *Apologia* irakurteak kezka bizia eragin eutsala euskerearen alde. Baina predikatu beharrak be gehitu eutsan nonbait larritasun hori. 1803an egin zan fraile, ikasketak kanpoan egin ondoren. Ondoko urteak Bilboko komentuan emon zituan Filosofiako Lektore gisa, harik 1815ean Zarauzko Kolejiora joan arte. Bilbon, ez da dudarik, Pedro Astarloagaz hartuemon handia euki eukean, baita euskera gaietan be[2].

Baina bataren eta bestearen kasuan, Zarautza joan ondokoak dira euskerazko lan guztiak. Juan Mateori ezagutzen deutsagun lehenengoa 1816-ko data daroan sermoi-bilduma bat, Bermeoko komentuan agertu dana[3]. Zarauzko misionari-etxean Kantabria probintziako lurralde edo "nazino" guztietako fraileak egozan, euskaldunak gehiengehienak. Handik urteten eben Nafarroa, Bizkaia, Araba zein Gipuzkoako leku askotara misinoak egiten, edota ospakizun askotan sermoi eta panejirikoak egiten.

Prediku-eskola hori, bada, euskal eskola bat gertatu zan praktikan hango fraileentzat. Eta eskola horretan euskal letretan adituenak, Añibarro eta Zabala izan ziran, duda barik. Komentu horretan idoro eben giro egokia euren euskal lehia eta asmoa beteteko, ez Bilbo edo Bermeokoan, esate baterako. Handik abiatzen ziran, beste lurraldee-

---

[2] Astarloaren *Urteco Domeca* obrako txatal batzuk osorik hartuta ditu Zabalak bere sermoi batzutan.

[3] Bilduma honetako sermoi-mordo bat Aita Villasantek argitara emon dau, Euskaltzaindiaren Klasikoak bildumako 18. alean.

tara legez, Bizkaiko eleizate eta uri euskaldunetara, eta misinoaldi bakotxean emoten eben hamabostaldi luzean hartzen eben astia eta erea, euskal berba, esakera, lokuzio eta ganerako herri-euskera baliapideak ikasi eta batzeko.

4. LANDU DITUEN GAIAK ETA GENER OAK

Añibarrorenak

Hasi gaitezan Añibarrogandik. Eleiz irakaste liburutxo bigaz ezagutzera emongo dau burua XIX. mende hasieran euskal literaturan. Mogelen *Confesio ta Comunioco... Eracasteac* Iruñean 1800ean argitara zan liburuaz edegi zan zirrikitu txiki bat euskal liburuentzako. Giro horren epelean aterako ziran Añibarroren obratxoak be: *Escu-Librua* 1802an eta Aita Palacios-ek onduriko beste baten itzulpena, *Lora-Sorta Espirituala* 1803an. Biak Tolosa-ko la Lama-renean. Juan Bautista Agirre asteasuarrak be urte honetan aterako eban *Confesioco, eta Comunioco... Eracasteac* liburutxoa silutegi berean.

Gero halako isilune luze bat dator. Ondoren Napoleonen inbasioaz giro latza subertatu zan fraile eta komentuentzat. Aldi horretan dihardu Añibarrok, 1808 inguruan, bere bizitzako obra nagusitzat asmatuko ebana idazten: *Misionari Euscalduna,* tomo bitan banaturik mila folio inguruko obra erraldoia.[4] Hatxa baino borondate gogorragoa eban gizonarentzat hemen hasten dira gauzak okertzen. Inprimategirako prest-prest itxi eban obra argitara barik geratu zan, eta

[4] Egileak berak dirausku, Karlos IV Frantziara eroan eta urtebete garrenera diharduala idazten:

«5. Nic au escribietan dodan demporan Españan bertan jazoten da gauza sentigarri bat. Españaco Erregue Carlos Laugarrena, ta bere urrengo Seme Erregue Fernando Zazpigarrena ichi ditu Francesac erreinu ta aguintaritza baga: eroan ditu Franciara; ta urte bete da, an dagozala. O œ gora beerac icusten direan munduan!» (*Mis* I 80)

gaur be halan dirau oraindino[5]. Bardintsu eta aldi beretsuan ondu ebazan Agirre Asteasukok bere *Erakusaldiac*, hiru tomotako obra luzea hau be. Baina sortze-garaia arazoz betea gertatu bazan be, gitxienez 1850 inguruan argia ikusteko zoriona izan eban.

Ildo beretik, Axularren *Gero* obra nagusia bizkaeratu eban. Mende honetara arte —RIEV-en atalka, baina ez osorik, argitara emon arte— ezagutu ez dan lana. *Lau Evangelioac batera Alcarturic*, "D. Bernardo Lamy-c dacartzan erara, ta A. Felipe Scioc erderatu cituan leguez" euskera ipini zituan. Pili Ziarrustak eginiko edizinoari eskerrak ezagutu da gure egunetan.

Gramatica Bascongada eta *VocesBascongadas diferenciales* hogeigarren hamarkadakoak dira. Aita Villasanteren edizioei esker ezagutu ditugu azken guduate ostean, hirurogeigarren hamarkadatik honuntz.

Obra osoari begiratuta, Añibarro idazle zehatza eta ugaria gertatu da euskal literaturarentzat. Bere lanak argitara emon eta gizartean hedatzeko lehiak bizituta ekin eutsan idazteari, baina zituan asmoak etenik geratu ziran, arrazoi desbardinakaitik: urte latzak ziran euskal edizioentzako; Zarauzko komentuak exklaustrazio etenbakoak jasan zituan; Kolejioa diru-urri ebilen argitaratze-kostuei erantzuteko; beharbada, aitabitxi onik ez eban aurkitu orduko jauntxo eta burgesia eukitsuaren artean. Idazlea hil ondoren be (1830), denbora luzea igaro beharko dau gainontzeko lanek argia ikusi dagien.

Zabalarenak

1) *Sermoegile*

Sermoi bildumak:

– Bermeoko bilduma (B). Bere lehenengo sermoi-bilduma, eta seguruenik, bere lehenengo obra.

[5] Labayru Ikastegiak da berau laster argitaratzekoa *Jarein* bildumaren barruan.

– Irungo bilduma (I)
– Jerusalengo bialduma (J)
– Arantzazuko bilduma (A)
– Sermoi solteak. Ezagutzen ditugunak Arantzazuko arkibuan konserbatzen dira.

2) *Literatura-sortzaile*

2.1.) Alegien bilduma: *Ipuin Onac.*

J. Mateo Zabalak bere eskuz idatziriko alegien bilduma, Parisgo «Bibliothèque Nationale» dalakoan aurkitu eban R. M. Azkuek 1904 inguruan, eta alegion ezagupidea Urkixori emon. D'Abbadie euskalzale jakintsuaren eskuetan egon ziran eta hau hil ondoren Parisera bialduak izan ziran[6]. Aurkikuntza izan eta lasterrera argitara emon zituan *RIEV*-en zuzendariak bere aldizkarian, orrialde bakarreko aurkezpentxoa (*Advertencia*) aurretik dauala, eta izenburutzat, *Fabulas en dialecto vizcaino* ipinirik. 1907ko urtean hogeita bosgarrenerainokoak eta 1909an enparadu apurrak.

Edizio honek ez deutso zehatz eskuizkribuari jarraitzen. Grafia eta puntuazioa gaurkoturik dakar. Eta hainbat berbaren transkripzioan be ez dira akatsak falta. Edizioaren prestatzailea ez da behintzat Urkixo, hak ez zituan holako aldaketak maite; filologo moduan textua egoan legetxe jagon gurago eban. Erraz susma daiteke Azkuek Urkixori bialdu eutsana berak eginiko transkripzioa zala. Eta ez da dudarik, *Euskalzale*-n autore eta testu zaharrekin erabili izan zituan

[6] Eskuizkribuaren amaieran, "Fin" hitzaren ostean, erderaz ohar hau dakar: "Paris, Bibliotheq. Nacional, asiento 50 a 25 de enero de 1904".

erizpide bardintsuak izan zituala honetan be. Urkixoren beraren berbetarik be hartu leiteke susmo honen arrastoa[7].

Ondoren egin diran argitaraldiek be lehenengo hau hartu dabe oinarritzat, ez eskuizkribua.

1934an, *Euskaltzaleak* erakundeak atera eban bigarrenez, Ariztimuñok atondurik: *Eusko Alegiak. Zabala'tar Matai. Ariztimuño'tar Joseba'ren Itzaurrea. 1934. "Euskaltzaleak". Donostia.* Edizio honek ez dau osorik jaso Zabalaren bilduma: egilearenak diralakotzat dagozanak bakarrik biltzen dira, eta inoren aitatasuna dabenak baztertu (*Moguelena*, *Salaberrirena* edota *Doña María Vicenta Antonia Moguelena* dakarrenak[8].

Oraintsuago A. Zelaietak *Klasikoak* bilduman aterariko edizioa be *RIEV*-ekoan oinarriturik dago, ez eskuizkribuan[9].

"Berba-aurrekoa"-n zehatz emoten deuskuz txorta honen zertzeladak. Bildumak guztira hogeta hamairu alegi dituala, euretariko hogeta bat idazlearenak berarenak, eta beste hamabiak beste batzuenak. Hogeita hamairuko txorta horri izenburutzat ipini deutso, *Ipuin Onac*, Bizentak, atzen baten berraren osaba Juan Antoniori ikasita, emon eutsen izenburu berberaz. Baina txorta horren sarrera legez, atal honeek dakaz: "Berba-aurrecoa" hitzlauz, "Sarrerea" bertsoz eta labur, eta ondoren "Anchinako euscaldunen alabantzac" bertso-konposizio

---

[7] Halan dino *Advertencia* horren hasieran: "Nuestro respetable amigo y colaborador D.n R. M. de Azkue nos envía una copia de las fábulas que á continuación publicamos, sacada de un manuscrito de la Biblioteca Naiconal de Paris (Colección A. d'Abbadie)".

[8] Ohar honen bidez arrazoitzen dau hautapena: "Gaur, ordea, lenengoz bereziki eratuta Zabala'ren alegiak liburutxo batean garbi taiutuak dakarzki «Euskaltzaleak». Ogeita lau dituzu alegi guziak, Mogel eta Salaberria'renak kendurik." (11)

[9] Juan Mateo Zabala, *Fábulas en dialecto vizcaino.* Klasikoak. Euskal Editoreen Elkartea, Labayru Ikastegia, Bilbao 1986.

luzea. Halan dino berak: “onei aurretic ganetu jakez Euscaldunen alabantzaac, eztakit nic norenac”. Zelaietak besterik uste izan arren, sinestuta gagoz idazleak berak onduak dirala bertsook. Egia da, bai, Astarloa ordena-lagunari be egotzi leikeozala, *Urteco Domeca*-ren bigarren tomoaren sarreran Franzisko Longa Antxia-ri egiten deutsan gorazarreko eduki eta ideia bardintsuak darabilzalako. Baina Zabalak berak be ideia berberok garatzen ditu Karlistate denboran Zarautzen eginiko sermoi baten, eta are antz handiagoa dabe sermoiak eta antxinako euskaldunen alabantza honeek. Zelan salatuko eban ba bere burua gure fraile adoretsuak, karlista eta liberalen gudarosteak burruka odoltsuan ziharduen denboran, eta giltzapetua izateko arrisku handiak ziran garai minbera hartan?

Gatzbakotzat epaituko ditu alegiok Eguzkitzak, ia ehun urteko urruntasunetik begiratuta[10].

2.2.) Gabon-kantak

2.3.) Beste genero batzuk: errefrauak.

3.) *Gramatikalari*

Euskal gramatika baten asmoa

Misino-aldietan euskal hitz eta aditz-formak batzen ekiten eutsanez, laster zabaldu zan euskal gramatika bat argitaratzeko asmotan ete ebilen. Halan heldu zan zurrumurru hori J. P. Ulibarriren entzutera, eta honek 1826an, Martiaren 1ean, Zabalari gutuna idatzi eutsan. Baina erantzun garrantza jaso eban Zabalagandik hilearen 26an (Urkijoren fondoan dago gutunori).

---

[10] “Neurez ez neunkan jas ori, iñoren gatzez ordeztu ta ornitzeko asmoz, Zabala'ren ipuñak gar eta ardura andiz irakurri nituan; baña, tamalez, *gatzontzian gatz gitxitxu* idoro neban. ¡Zer egingo yako, ba! Al doguna dagigu andre ta jaunak, al doguna ta ez nai doguna!” (*Lenengo Euskalegunetako...* 14)

Forua euskaraz emoteak ez eban asko kezkatzen gure gizona, baina euskal aditzaren gramatika bat idaztearena, gogo barruan ekarren grina zan. Aurretiko baltzak zituan eginkizun horren alde: Astarloa argitaratzeko zan gramatika famatua hutsean geratu zan. 1806an hil zan Pablo Astarloa (inork uste baino lehen, Mogelen oste-ostetxoan), eta haren lanak argitaratzeko ardurea euren gain hartu eben Zamakola eta Erro-k behin be ez eben harturiko mandatuori bete, ezta lanok inoren eskuetan itxi be.

J.M. Zabalak, behin baino sarriago eskatu eutsezan Astarloaren paperen jabeei, euskal gramatikaz honek eukazanak, bere lana hasi aurretik. Baina ukatu izan eutsezan, Astarloari bere ospe eta meritua kentzea izango zala-ta. Halan da be, 1821ean, Astarloak bere eskuz idatzitako kuaderno baten jabe egin zan nondik edo handik —eskuizkribu luzea ez behintzat, "un folleto" soil-soilik—. Hutsune handiak ei zituan kuaderno horrek, baina dirudienez haetan aurkitu eban argia eta zuzenbidea Zabala euskalzaleak, bizkaierazko aditza ulertu eta atontzeko orduan. Azpikeria barik, ondradu jokatzen dau Zabalak iturri hori autortueran.

3.1.) *El Verbo Regular Vascongado del dialecto vizcaino, por Fr. Juan Mateo de Zavala, misionero, y escritor del Colejio de Zarauz en la Provincia de Cantabria de Franciscanos observantes. San Sebastian. Imprenta de Ignacio Ramon Baroja. 1848.*

Astialdietako lana dala autortzen deusku, baina luzarokoa eta etengabea: "como que hace ya mas de treinta y ocho años que le comencé, y jamas le he dejado, sino en los casos de imposibilidad". Ondoren beste bederatzi urtean argitara emon barik euki dauala obra osotua autortzen deusku, bitarte horretan beste aditu batzuk oharrak egin degioezan (*VRV*, IV 1º). Halan bada, 1830-31 baino lehen amaiturik euki behar eban. Eta 1840an hil zan ezkero, Astarloaren *Apologia* argitara zan 1803ko urte ingurua ipini leiteke obraren hasiera-abiapuntutzat.

Zabalak argitaratzeko prest itxi eban *Verbo Regular Vascongado*-ren testua. Beharbada gramatika hauxe da, alegi-bildumagaz batera, asmo horregaz borobildu ebana, baina hil ondoren oraindino beste zortzi urte itxaron behar izan eban lan horrek argitaratzeko. Azkenean, 1848an atera zan Donostiako Barojaren irarkolan, Gipuzkoako Aldundiaren aginduz eta diruz. Ordena-lagun Añibarrok edo Mogel markinarrak izan eben baino zori hobea ezagutu eban edozelan be.

Zarautzen luzaroan bizi izanik, Gipuzkoan hartuemon onak zituan Aita Zabalak, eta besteak beste, Montorrongo kondearekin (cfr. Eguzkitza). Zabalak lagun zituan Gipuzkoako zaldun eta handiki horreek jaretsi ebela dirudi Aldunditik dirua, argitarakuntza bideratzeko.

Obraren metodologiaz eta edukiaz zerbait esan daigun. Euskal aditzaren egitura eta banaketa egiterakoan, bere bidea bilatu behar izan ebala dinosku Zabalak, Astarloak landuriko gaiak zuzentzerik izan ez eban ezkero. Garrantzitsua da Astarloaren eta beraren jardupidearen artean egiten dauan bereizkuntza:

"Imposibilitado de poder andar, por las huellas del apologista, me he procurado abrir un camino que sea mio: el cual por el mismo hecho debe ser, á lo menos en parte, distinto del de aquel sabio: y aun deberá serlo mas por el diverso modo con que hemos propuesto andar cada uno el suyo respectivo. Astarloa se decidió á tratar filosófica y esactamente del vascuence considerando segun su índole y naturaleza: yo mirando á nuestra lengua segun la usamos en el dia, y con las modificaciones y alteraciones que necesariamente ha debido padecer con el transcurso de tantos siglos, como cuenta de existencia, me he fijado por regla el hacerme entender de aquellos para quienes destino mi obra, acomodándome á veces con este intento á las ideas y espresiones recibidas, aun cuando no cuadren tan bien á nuestra gramática." (*VRV,* II-III).

Obraren emaitzaz pozik eta harro agertuko da egilea. Beraren aurretikoak baino urrunago eta sakonago jo dauala guztiz sinestuta[11]. Eredutzat aurkeztuko deusku bizkai aditzarentzat eskeintzen deuskun azterbidea beste literatura-euskalki bientzat be: gipuzkera eta lapurtera.

Ez jagoku hemen obra honen alde onak eta ahulak epaitzea, horrek azterketa berezi bat eskatuko leukealako. Ahultasunen artean, berreraikuntza edo errekonstrukzio gogoa aitatu ginai. Beste era batera esanda: paradigmetan agiri diran adizki guztiak, ezta hurrik emon be, ez dira erabiliak. Eta jokabide horregaitik kritika zorrotzak be jaso zituan bere aldian.

Besteak beste, hitano adizkiei emoten deutsen garapena da kritikagarriena. Egia da mendebalde-bizkaieran, eta Arratia aldean berariaz, mendeko adizkietara be hitano adizkiak neurri baten hedatu direana, eta Zabalak bere textuetan be inoiz badarabilz holakoak. Baina gramatika-liburuan jatortasun osoa autortzen deutse adizkioi eta paradigma osoak beteten ditu hitano flexioekin. Besteak beste Intxauspe zuberotarra izan zan ahultasun hori salatu ebana[12].

---

[11] Halan dino:

"Sea lo que fuere, me parece que no me equivoco en la idea, en que estoy, de que he avanzado mas que los escritores, que me han precedido, escepto Astarloa, y que vierto noticias que en vano se buscarán en ellos. Los tres participios consuetudinarios, los ocho modos, los cuarenta tensos, ó sean tiempos, los artículos de primeras y terceras personas del trato familiar, a análisis de todos los de todas clases, los artículos comunes para la facilidad de su estudio, y otras muchas luces (...)" (*VRV*, III).

[12]Luis Luziano Bonaparte-ri 1858.04.06an zuzenduriko gutun baten hara zer dinoan, besteak beste (cf. Alfonso Irigoien, "Cartas de Inchauspe al Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *Euskera*, II (1957), 171-260):

«"Je regrette de n'avoir pas eu de Biskayen à consulter pour ce dialecte. Je sais que Zabala indique des terminatifs particuliers pour le masculin et le féminin dans toutes les formes, à toutes les personnes. Mais je vous avoue que j'ai peu de confiance dans Zavala. Avant que je ne le connusse, j'avais vu son ouvrage entre les mains de M. l'abbé Harriet recteur de S. Louis à Madrid; il me rapporte que des

4.) *Lexikografo*

– *Otxandioko eskuizkribua:* «Colección de Voces y Frases, oídas en las Misiones de Vizcaya» (Fondo Julio Urquijo. Sig. 4736)

Azkuek bere Hiztegian hainbeste biderrez zitatzen dauan *Manuscrito de Ochandiano* (*MasOch* dalakoa), Juan Mateo Zabalak egina edo sortua dala ziurta daiteke huts handi barik.

---

prêtres de Biscaye lui avaient dit que le P. Zavala avait mis dans son ouvrage beaucoup de formes de son invention qui n'étaient nullement connues. Lorsque j'ai trouvé ces traitements masculins et feminins dans les temps du subjonctif je n'ai pas douté qu'ils ne fussent de son fonds. Le jugement est grave; il pourrait être erroné, mais il n'est pas témeraire parce qu'il est fondé sur ce qui M. Harriet m'a dit et sur ce que ces sortes de terminatifs ne sont dans aucun des autres dialectes.

"Je serais bien aise que le P. Uriarte mit en Biscayen les six exemples que je viens de donner pour le dialecte Guipuscoan.

"Je pense qu'en Biscaye on dit:

"1er ex.: resp.: *esan egiozu etorri nazala;* m.: *esan egiok etorri nazala;* f.: *esan egion etorri nazala;* dites lui que je suis arrivé, *nazala* a tous les genres?

"2e ex.: ind.: *jakin dot Maria juan dala;* m.: *jakin yoat Maria juan dala;* f.: *jakin yonat Maria juan dala; dala* qu'elle que soit la personne à qui l'on parle?

"3e ex.: ind.: *nai dot Juan etorri dedin,* je veux que Jean vienne; m.: *nai yoat Juan etorri dedin,* et non *yadin;* f.: *nai yonat Juan etorri dedin,* et non *yadidan.*

"4e ex.: ind.: *nai dau eman dagidan,* il veut que je donne; m.: *nai dok eman dagidan,* tu veux que je donne, non *yagiadan;* f.: *nai don eman dagidan,* tu (fem.) veux que je donne; non *yagidanan; dagidan* qu'elle que soit la personne à laquelle on s'adresse?

"5e ex.: ind.: *jakin dot egin dauela;* m.: *jakin yoat egin dauela;* f.: *jakin yonat egin dauela,* j'ai su qu'il a fait.

"6e ex.: r.: *esan egiozu Catarinari bialdu dagian Joan,* dis à Catherine qu'elle envoie Jean; m.: *esan egiok Catarinari bialdu dagian,* et non *yagian?;* f.: *esan egion Catarinari bialdu dagian,* et non *yagiñan?*

"Dans *qu'elle t'envoie* (à la bonne heure) on exprime le genre dans tous les dialectes.

"Je désirais savoir si les phrases précédentes sont régulieres pour être édifié au sujet de Zavala. Je crois qu'il a fait son verbe comme il s'est imaginé qu'il devrait être et non tel qu'il existe dans le langage et dans les livres". "...".»

Julio de Urquijoren arkibuan dago —anai Berriotxoa izan zan berorren aurkitzailea—. Beronek agertu eban susmoa, Zabalarena zalakoa: "Casi son coincidentes los títulos del Manuscrito de Ochandiano y el que transcribe el P. Villasante como perteneciente al enviado por el P. Zabala a Lecluse". L. Mitxelenak, aurrekoaren jarraiko ohar baten on egiten dau Zabalarena dalakoa.

Errefrau txito interesgarriak be ez dira falta berorretan. Hona L.M.k aitatzen dituan bi. Bata: *etse utsa arra utsa, chacur argala ardi utsa*. Bestea: *tratua ona izateco* galdua*ta* gordea *erdi bana izan bear dira, las pérdidas y ganancias, a medias*.

- *Colección de voces vascongadas oídas en las misiones de Vizcaya*.

- *Otra colección de voces y frases, sacadas de varios autores.*

5.) *Bibliografo*

Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz después de la que cuenta el P. Larramendi. Donostia, Baroja etxean irarria.

Euskal bibliografia-lan garrantzitsua bete eban Zabalak lan labur baina aberats baten bidez. Erdaraz dago idatzia: «Noticia de las obras bascongadas que han salido à luz despues delas que cuenta el P. Larramendi.». 16 orrialde egiten ditu eskuizkribuak, eta berean Ifarraldeko —"En bascuence de Francia" izenburupekoaz— eta Hegoaldeko liburuen barri emoten jaku.

Zabalaren begi zorrotza da, besteak beste, harritzen gaituana. Idazlanok irakurriak dituala esan leiteke, ze hizkerari buruzko zehetasun argiak emoten deuskuz. Batzutan, euron kalitateaz: "Su bascuence no tiene merito", "Su bascuence es bastante bueno". Beste batzutan, euskalkia (zuberoera). Beste batzutan, itzulia dan eta zein dauan jatorrizko hizkuntza.

Egileak bizirik dituen liburu batzuen eritxia emoterakoan, hara ze jarrera zuhurra hartzen dauan: "Nota. Como varios de los Autores de las siguientes obras aun viven, me abstengo de dar censura à sus obras, sino la merecen buena". Villasantek aspalditxo ohartu ebanez, bere ordenalagun eta Zarauzko Misionari Kolegio bereko misiolari zan Jose Kruz Etxeberria oiartzuarraren obra aitatu egiten dau soil-soilik, ezetariko azalpen ez eretxirik emon barik[13]. Ez dago zertan esanik, Zabalak ez eukan idazle ontzat oiartzuar idazlea.

Euskerearen inguruan idatzi izan daben jakituen batzuen izenak aitatzen ditu. Besteak beste, Masdeu Abatak bere "Historia Critica de España" dalakoan idatzia, gehienbat zuzena dala dino, baina sakontasun bakoa, eta etimologia batzuetan huts egin dauan adibideak aitatzen ditu (*illarguia*), Astarloaren *Apologia*-ra bialtzen gaituala. Iberiako peninsularen populazio zaharraz dinozanak be euskaliberismoaren begiz kritikatzen ditu. Bigarrenez, Hervás y Panduro eta honen "Catalogo de las Lenguas Conocidas" eta "La Historia del Hombre" obrak dakarkuz gomutara.

6. ONDORIOAK

a) Bizkai mendebaldeko literatura klasikoak eragin oso ahula izan eban, produzitu zan denboran zein geroko belaunaldietan. Argitaratu ziran obretarik *Escu-Liburua* izan zan argitaraldi-kate bat ezagutu eban bakarra, baina 1802-1823 bitarteko etenagaz. *Lora-Sorta* obratxoak be ez eban argitaraldi barririk ezagutu mende-akabura arte. Argitaratu barik geratu zan materiale guztia ia mende honetara arte

[13] 1821ean argitara eban Jose Kruz Etxeberriak Tolosako Francisco de la Lamaren silutegian *Devociozco vicitzaraco sarrera* titulu nagusitzat daroan formato txikiko 614 orrialdeko liburu mardula, San Francisco Sales-koarenetik euskerara egokiturik.

ez da ezagutu izan: Zabalaren *Ipuñak* eta Añibarroren gramatika-hiztegiak. Zabalaren aditz-obra da salbuespen bakarra.

b) Bizkai erdi eta mendebaldeko urietan (Bilbao, Bermeo, Gernika...), salbuespen apalen bat kenduta, ez zan halako euskal girorik erne, zelan-halango euskal literaturgintzari bidea erraztuko eutsanik.

c) Bizkai mendebaldeko literatura klasikoaren ernelekua, Gipuzkoa eta misino-etxea subertatu ziran.

d) Erlijio-didaktikara mugatzen da literaturgintza. Horregaz batera, hizkuntzazko gogoeta lantzen da: gramatika, herri-lexikoa eta, apurren bat, herri-jakintza edo herri-literatura.